



EUSKARA JENDEA

Mugetan gaindi

B MAILA ikaslearen kaiera

“EUSKARA JENDEA” DOKUMENTAL SORTA

Zein izan da gure hizkuntzaren ibilbidea historian zehar? Nola bizi izan du gure jendeak euskara? Nolako eragina izan dute hurbildu zaizkigun herri eta kultura desberdinek?

“Euskara jendea” dokumental sortak galdera horien eta beste hainbaten erantzunak eskaini nahi ditu. Horretarako, Xamarrek 2006an Pamiela etxean argitaratutako izenburu bereko liburua hartu du abiapuntu, eta liburuak bezala, modu ulerterraz eta atseginean gure hizkuntzak eta gure jendeak eskuz esku egin duten ibilbide luzera hurbiltzea du helburu.


Lana 45 minutu inguruko sei dokumentalek osatzen dute:

- I. HISTORIAREN ATARIAN
- II. ERROMAKO INPERIOAN
- III. ANIZTASUNAREN BIDEAN (ERDI AROA)
- IV. MUGETAN GAINDI (ARO MODERNOA)
- V. GERREN ARTEKO PIZKUNDEAN (1800–1945)
- VI. MUNDUA OSATZEN

KAIER DIDAKTIKOAK

Kaier didaktiko hauen helburua “Euskara jendea” dokumental sorta B eta C mailako euskara ikasleei hurbiltzea da. Horretarako, dokumentalen kontakizunei jarraitzeko eta aipatutako mailei dagozkien hainbat eduki lantzeko jarduerak eskainiko dira kaieretan. Jarduera horiek bai banaka (ikasleak bere kabuz), bai taldeka (euskara eskoletan) erabiltzeko aukera eskainiko dute.

KAIERAK BANAKA ERABILI

Nahi izanez gero, kaier hauek bere kabuz erabili ahal izango ditu ikasleak, irakaslearen edo ikaskideen laguntzarik gabe. Horretarako ariketa bakoitzaren enuntziatua arretaz irakurtzea eta jarraitzea besterik ez dago, “talde lana” sinboloa duten atalak alde batera utzita ().

Ariketen erantzunak lan bakoitzaren azken orrian aurkituko ditugu.

MUGETAN GAINDI

Aro Modernoa XV. mendearen bukaeratik XVIII. mendearen bukaerara doan garaiari deitzen zaio. Erdi Aroaren iluntasuna atzean geratu da, Europako antolaketan eta gizartean aldaketa sakonak ematen hasten dira, eta horrek, jakina, eragin nabarmena du euskal munduan ere. Eragin horiek ezagutu ditzagun, “Euskara jendea” sortako laugarren dokumentalak mende horietara hurbilduko gaitu.

AURKIBIDEA

Dokumentala ikusi aurretik

ARO MODERNOAN KOKATZEN

1. Honela izan ote zen? 4. orr.

Helburua: Dokumentalaren ikusketa prestatu, garaiko testuinguruari erreparatu.

Dokumentalaren ikusketa

ARRETA BIDERATU

2. Zein ote da egia? 6. orr.

Helburua: Dokumentala ikusi bitartean arreta interesatzen zaigunean jartzea

Dokumentala ikusi ondoren

ZEHAZTAPENAK GOGORATUZ

3. Oroitzen zara? 8. orr.

Helburua: Dokumentalean ikusitakoa eta entzundakoa gogoratu.

NOLA IDATZI PARAGRAFO EGOKI BAT

4. Paragrafoak pausuz pausu eraikitzen 11. orr.

Helburua: Adibide bati jarraiki, paragrafo egokiak idazteko teknika bat ikasi.

Ondorioak eta auto-ebaluazioa 19. orr.

Erantzunak 20. orr.



Dokumentala ikusi aurretik: Aro Modernoa kokatzen

Aro Modernoa Erdi Aroaren ondoko garai historikoari deitzen zaio. Herrialdearen arabera, Aro Modernoaren hasiera une desberdinetan kokatzen da (1455ean inprentaren asmakizunarekin, 1492an Kolon Amerikara iristean, 1512an Nafarroako konkistarekin, 1517an Martin Lutherren erreformarekin...), baina kasu guztietan datak XV. mendearen bukaeratik XVI. mendearen hasierara doaz. Bukaerari dagokionez, Frantziako Iraultzak markatzen du aro baten amaiera eta beste baten hasiera.

Garai hartan denetariko aldaketak eman ziren geure inguruan: Espainiako eta Frantziako estatuen indartzea, lurralde berrien ezagutza, protestantismoaren sorreraren ondoko gatazka erlijiosoak... Eta hauek guztiek euskal lurraldeetan, bertoko gizartean eta baita hizkuntzan ere eragin handia izan zuten. Horretaz mintzatuko zaigu, hain zuzen ere, “Mugetan gaindi” izeneko dokumentala.

1. Honela izan ote zen?

Hemen dituzu, laburbilduta, Aro Modernoari buruzko dokumentalean eskainiko zaizkizun ideia nagusiak. Baina laburpen honetan esaten den guztia ez da egia; izan ere, hiru datu faltsu txertatu ditugu.


1.1 . Irakurri testua letra beltzez idatzitako pasarteei arreta berezia jarritz (hauen artean baitaude datu faltsuak), eta saia zaitez gorde ditugun gezurrak identifikatzen. Horretarako, susmagarri deritzozun edozein esaldi azpimarratzea proposatzen dizugu (hiru baino gehiago izan daitezke susmagarriak) .

Aro Modernoa: Ideia nagusiak

1512an Fernando Katoliko erregeak Nafarroako Konkista militarra abiatu zuen.

Dagoeneko, hiru mende ziren Bizkaia, Gipuzkoa eta Araba Gaztelak bereganatuak zituela, eta Lapurdi eta Zuberoa ere Frantziaren esku ziren jada. Urte gutxitan konkistatzaileak hegoaldearen jabe egin ziren. **Iparraldean, berriz, Nafarroako Erresumak biziraun egin zuen.**

XVI. mendearen hasieratik, bestalde, Espainiako eta Frantziako Erresumak sendotzen joan ziren, eta administrazioaren egitura indartu zuten. **Horren ondorioz, herritar euskaldunen eta mundu ofizial erdaldunaren arteko zuloa handiagoa bilakatu zen.** Oraindik, hala ere, **oso garrantzitsua zen abokatuentzat, elizgizonentzat eta horrelakoentzat euskara jakitea.**



Arabako eta Nafarroako hegoaldean, bereziki hirietan eta goi-klaseko jendearen artean, euskarak atzera egin zuen nabarmen. Iparraldean, ordea, euskara ia erabat desagertu zen, Baionan salbu.

Giro horretan, Bernart Etxeparek euskarazko lehen liburua plazaratu zuen 1545ean, *Linguae Vasconum Primitiae*, hau da, euskaldunen mintzairaren hastapenak. Erdaraz soilik idazteak ekar zezakeen kalteak sumaturik, Etxepare lehenengoa izan zen hizkuntzaren normalizazioa aldarrikatzen: «*Euskara, jalgi hadi plazara!*».

Aro Modernoan itsasoak garrantzi ikaragarria hartu zuen. Baleez gain, bakailaoaren arrantza ere bilakatu zen arrantzaleen helburu. **Horren ondorioz, euskal arrantzaleen presentzia oso garrantzitsua izan zen, besteak beste, Kanadako Ternuan eta Labradorren.**

Garai haietako arrantza bidaietan mundu eta zibilizazio berrietan murgiltzen ziren arrantzaleak, eta horrelako egoeretan “pigdin” izenekoak sortzen ziren, hau da, **bisitarien hizkuntza bertoko hizkuntzen gainean inposatzea. XVI. mendearen hasieran, esaterako, Islandian euskaraz mintzo zen.**

Bestaldetik, Errenazimentuan sortutako **Erreforma protestanteak laguntza handia eskaini zien Europako zenbait herri hizkuntzei.** Testuinguru horretan, **Joanes Leizarragak Biblia euskaratu zuen protestante bihurturiko Albretoko Joana Nafarroako erreginaren aginduz.**


Protestantismoari aurre egiteko, **Eliza Katolikoak ere dotrinaren ezagutza zabaltzeko herri hizkuntzak erabiltzea erabaki zuen XVII. mendean. Egoera hau mesedegarria izan zen euskal literaturarentzat, besteak beste, Sarako eskolaren agerpena ahalbidetuz. Eskola honetan Urdazubiko Axular nabarmendu zen, “Gero” liburuaren idazlea.**

Ildo beretik, XVII. eta, batez ere, XVIII. mendean Orogen Eskolak deitutako eskola ttipiak sortu ziren. **Eskola hauek, gehien bat, Elizak bultzatu zituen, eta lehen helburua kristau dotrina ikasaraztea bazen ere, hiru gaitasun oinarrizko lantzen ziren: irakurtzekoa, idaztekoa eta zenbatzekoa.**

XVIII. mendean erresumak gero eta sendoagoak ziren, burokrasia administratiboa indartu zen, eta komunikaziorako hizkuntza-tresna indartsu bakarraren alde gero eta nabarmenago egiten hasi ziren herri hizkuntzen kalterako. Orduan, **egoerari aurre egin nahian, euskararen defendatzaileak eta apologistak sortu ziren, hala nola, Joanes Etxeberri, Agustin Kardaberaz eta, batez ere, Manuel Larramendi.**

1789an Frantziako Iraultzaren ondoren sorturiko Legebiltzar berriak lege bakarra inposatu nahi zuen Estatu osorako, baina, horrekin batera, **herri hizkuntzen eta identitateen aldeko politika sendoa ere hasi zen. Estatuan egiten ziren hizkuntzak, euskara barne, jakina, Estatuaren altxorak ziren.**

1.2 Eta orain, azpimarratu dituzun esaldien artean, susmagarrien deritzezun hirurak aukeratu.

1.3  Elkartu ikaskide pare batekin, eta alderatu aukeratu dituzuen datu faltsuak. Esaldi berberak azpimarratu dituzue? Horrela ez bada, saia zaitezte faltsuak izan daitezkeen datuak zein diren adosten.

1.4 Testua irakurtzean zalantzaren bat sortu bazaizu, ikaskideekin argitzen saiatu.

OHARRA: Ez begiratu erantzunak dokumentala ikusi arte.

Dokumentala ikusi bitartean: Arreta bideratu

Aurreko orrietako testua irakurri eta aztertu ondoren, Aro Modernoari buruzko dokumentala ikusteko unea iritsi zaigu. Eta ikusi bitartean arreta interesatzen zaigunean jartzeko, ondoko ideia proposatzen dizugu.

2. Zein ote da egia?

Aurreko orrietako testuan faltsutzat jo ditugun adierazpenak azpimarratu ditugu. Orain, dokumentala ikustean, zein datu diren egiazkoak eta zein faltsuak konprobatu ahal izango dugu. Honela egingo dugu:

a. Dokumentala ikusi aurretik balizko adierazpen faltsuak idatzi. Hiru adierazpen faltsu baino ez dagoen arren, gehiagorekin ere zalantzak izan ditzakezunez, beste horiek ere jaso zerrendan. Batzuk zein bestek zerrendaren lehenengo zutabea idatzi.

b. Dokumentala ikusi bitartean arreta berezia jarri zerrendan jasotako ideiei. Horietako bat faltsua dela baieztatzen baduzu, ondoan, eskumako zutabea, egiazko informazioa idatzi. Arretarik ez galtzeko, gogoratu ohar azkarrak hartzea komeni dela (hitz solteak, amaitu gabeko esaldiak...).



Nire ustezko hiru adierazpen faltsuak:

Egiazko informazioa:

1.

2.

3.


Adierazpen hauekin ere zalantzak ditut:

Egiazko informazioa:

4.

5.

6.

C.  Dokumentala ikusi ondoren elkartu ikaskide batekin, eta alderatu zeuen lanak. Identifikatu dituzue datu faltsuak? Ados zaudete?



Dokumentala ikusi ondoren: Zehaztapenak gogoratu

Irakurri dugun laburpenari eta aurreko orriko ariketari esker, dokumentalaren ideia garrantzitsuenak nahiko argi izango ditugu. Baina ideia garrantzitsu horiez gain, dokumentalak bestelako ideia interesgarri asko eskaini dizkigu, eta orain ideia horiek gogoan dituzun ikusiko dugu.

3. Oroitzen zara?

3.1 Irakur itzazu galderak, eta aukera itzazu dagozkien erantzun zuzenak.

1. Nafarroako Konkistaz mintzatzean, zer esan dute dokumentalean?

- Bi hamarkadako gatazka aldi odoltsua izan zela.
- Fernando Katolikoak 1512. urtean Nafarroako Erreinu osoa bereganatu zuela.
- Nafarroaren Konkistak mende oso bat iraun zuela.

2. 1530ean Iruñerako gotzain berria izendatzeko...

- Gaztelera soilik ezagutzen zuten gotzaina izatea erabaki zuten, konkistatzaileen hizkuntza zelako.
- Gotzain elebiduna eskatu zuten, Nafarroa Garaian euskara hizkuntza arrunta baitzen.
- Gotzain euskalduna eskatu zuten, Iruñeko biztanleen hizkuntza nagusia euskara baitzen.

3. 1587an Elizak Nafarroan egin zuen inkestan, zein datu bildu zituen?

- 509 herrien artean, 58 gaztelera egiten zuten eta gainerako 451ak elebidunak ziren.
- 509 herrien artean, 58 euskaldun elebakar agertu ziren.
- 509 herrien artean, 451 euskaldun elebakarrak ziren.

4. Etxeparek Linguae Vasconum Primitiae idatzi zuenean...

- Bazekien euskarazko lehen liburua idazten ari zela.
- Ez zekien euskarazko lehen liburua idazten ari zela.

5. Nork eta zergatik esan zuen "Parisek ongi merezi du meza bat"?

- Joanes Leizarraga idazleak Pariseko gotzain izendatu zutenean.
- Carlos II enperadoreak Paris konkistatu zuenean.
- Nafarroako Enrike III.a Frantziako errege izendatzeko katoliko egin zenean.





6. Euskal arrantzaleen presentzia Kanadako Ternua aldean aipatzean, zera esan zuen Esteban Garibai historialariak:

- a. Kanada aldera joateko euskaraz mintzatzea derrigorrezkoa zela esan zuen.
- b. Euskaldunek bertakoen hizkuntza ikasteko ahaleginak txalotu zituen.
- c. Ternuako biztanleen euskara ikasteko trebezia azpimarratu zuen.

7. Kanadako Ternua eta Labradorreko mapei dagokienez...

- a. Italiarrek, frantziarrek eta ingelesek izenik gabeko mapa ilunak zituzten bitartean, euskaldunek xehetasun handiko mapak egin zituzten.
- b. Euskaldunek italiarren, frantziarren eta, bereziki, ingelesen mapak erabiltzen zituzten.
- c. Garai haietan ez zegoen alde horretako maparik, eta orduko nabigatzaileak beste moduetan orientatzen ziren.

8. 1713an, Utrecht-eko Itunarekin, Frantziak Ternua galdu zuen ingelesen eskutan utzita. Horren ondorioz...

- a. Arrantzale euskaldunak berriro itzuli ziren hango lurretara berrindartuta.
- b. Arrantzale euskaldunak Ternuatik kanpo geratu ziren aurrerantzean.

9. XVII. mendean, bada, Espainiaren eta Frantziaren arteko muga Pirinioetan zegoela...

- a. Alde bietako euskaldunei mugaz gaineko tratuak egitea debekatu zitzaien.
- b. Alde bietako euskaldunek, ordea, mugaz gaineko tratuak egiten jarraitu zuten akordio batzuei esker.

10. XVII. mendean Bizkaiko Batzar Nagusietan...

- a. ...ordezkarien artean euskaraz hitz egitea debekatu egin zen.
- b. ...ordezkariak derrigorrez gazteleraz idazten eta irakurtzen jakin behar zuten.
- c. ...ordezkariak idazten eta irakurtzen jakin behar zuten, bai euskaraz, baita gazteleraz ere.

11. Nafarroan 1765. urtean auzi zibil eta erlijiosoetan lekukoaren adierazpenak hartzen zituzten komisarioei...

- a. ...euskaraz mintzatzea debekatu zieten.
- b. ...euskararen ezagutza erakustea eskatzen hasi zitzaien.
- c. ...euskara azterketa egiteari utzi zioten.



12. Larramendik, euskararen aurkako politiken aurrean mintzairaren defentsarako lanez gain, “El imposible vencido” liburua idatzi zuen. Zein liburu mota zen hau?


- Eleberri bat.
- Gramatika liburu bat.
- Erljio liburu bat

13. Frantziako Iraultza arte “hizkuntzak erabili egiten ziren, baina ez bata bestearen kontra. Une hartan, ordea, aginte politiko guztiarekin, bat beste guztien kontra hasi zen askatasunaren izenean.” Zein ote da hizkuntza hori?

- Frantsesa.
- Euskara.
- Latina.

- Jaso itzazu erantzunak ondoko fitxa honetan:

1:	2:	3:	4:	5:	6:	7:	8:
	9:	10:	11:	12:	13:		

3.2  Erantzunak fitxan jaso ondoren, elkartu zaitetz ikaskide batzuekin, eta lanak alderatu. Elkarren laguntzaz zalantzak argitzen ahalegin du, eta erantzunen batekin ados ez bazaudete, dokumentalean ikusitakoa gogoan eztabaitatu eta adostasunera iristen saiatu.

Dokumentala ikusi ondoren: Nola idatzi paragrafo egoki bat

Dokumental honi esker ikusi dugun zerbait idatziz azaldu nahi badugu, besteak beste, paragrafoak ondo idazten jakin beharko dugu. Bada, hori ikasten ahaleginduko gara azken atal honetan.

4. Paragrafoak pausuz pausu eraikitzen

4.1 Paragrafoak nola idatzi behar diren aztertzeko, hemen duzu adibide bat. Irakur itzazu pausuak arretaz, eta egin proposatzen zaizkizun ariketak.

1. urratsa: Zer idatzi nahi dugun argitu.

- Ezer idazten hasi aurretik, idatzi nahi duguna argi izan beharko dugu. Dokumentalean, esaterako, hainbat kontu-ri buruz mintzo zaigu. Zer kontatu nahi dugu? Asmo hori esaldi bakarrean laburbiltzea modu eraginkorra izan daiteke testua idazten hasteko. Adibide honetarako, esaterako, ondoko ideia hau aukeratu dugu:

Zera kontatu nahi dugu: "Aro Modernoaren hasieran, Nafarroako Konkistaren ondoren, euskal lurraldea banatuta geratu zela, eta horrek eragina izan zuela bertoko jendearengan eta hizkuntzan."

2. urratsa: Ideia nagusiak aukeratu.

- Bigarren urratsa, geure testuan jorratuko ditugun ideia nagusiak hautatzea izango da. Zer esango dugu kontatu nahi dugun hori argi uzteko? Aukeraketa hau oso garrantzitsua izango da, ideia bakoitza geure testuaren paragrafo baten ardatza izango baita. Geure adibidean ideia nagusi hauek aukeratu ditugu:

*1. Nafarroako Konkistaren ondoren, euskal lurraldea erdibituta geratu zen.
2. Espainiako eta Frantziako erresumen indartzeak, administrazioaren indartzea ekarri zuen euskararen kalterako.*

3. urratsa: Ideia nagusiak adierazteko ideia osagarriak bildu eta antolatuta.

Hirugarren urratsa, aukeratutako ideien garapena diseinatzea izango da: nolako zehaztapenak (datuak, adibideak...) emango ditugu ideia nagusi bakoitza azaltzeko? Adibidearekin jarraiki, honelako eskema prestatu dugu lehenengo ideia garatzeko:

IDEIA: Nafarroako Konkistaren ondoren, euskal lurraldea erdibituta geratu zen.

ESKEMA:



1. ariketa


Aurreko orrian lehenengo ideia nagusia garatzeko eskema irakurri ahal izan duzu. Baina beste ideia nagusi bat falta dugu oraindik. Osatuko duzu bigarren ideia nagusia garatzeko eskema?

IDEIA: Espainiako eta Frantziako erresumen indartzeak, administrazioaren indartzea ekarri zuen euskararen kalterako.

ESKEMA:

XVI. mendean Espainiako eta Frantziako erresumak sendotu


DATUA:
.....



ESKEMA OSATZEKO DATUAK

- a. XVI. mendean Espainiako eta Frantziako erresumak sendotu
- b. Gaztelako Koroatik gertutasuna
- c. Hainbat lurralde eta guneen erdalduntzea
- d. Mundu ofizialak euskara behar
- e. 1587an, Nafarroako 509 herrietatik, 451 euskaldun elebakarrak
- f. Hiriak eta hegoaldeko herriak
- g. Mundu ofiziala erdalduna
- h. Administrazioak sendotu
- i. Herria gehienbat euskalduna
- j. 1530ean Iruñerako gotzain elebiduna eskatu
- k. Goi klaseak



4.2  Elkartu ikaskide batekin, alderatu eskemak, behar diren zuzenketak egin, eta komentatu gaiaz gogoratzen duzuen: gertakariak, ondorioak, atentzioa eman dizuen zerbait. Beste zerbait sartuko zenukete eskema horretan? Zer? Zergatik?



4. urratsa: Datuak elkarri lotuz, paragrafoa idatzi.

- Behin zer azaldu nahi dugun (ideia nagusiak) eta nolako zehetasunak emango ditugun (ideia osagarriak: datuak, adibideak...) argitu ondoren, testua idazten hasteko unea iritsi zaigu. Horretarako, ideia nagusi bakoitzaren inguruan paragrafo bat idatziko dugu.

Paragrafoa honela antola dezakegu:

- **Esaldi nagusia.** Esaldi honetan paragrafoaren ideia orokorra agerian utziko dugu. Irakurleak testuaren mezuari errazago jarrai-tzeko, esaldi nagusia paragrafoaren hasieran joan ohi da. Geure adibidean honela idatzi dugu:

“Aro Modernoaren hasieran, Nafarroako Konkistaren ondoren, euskal lurraldea zatituta geratu zen.”

- **Esaldien arteko koherentzia.** Paragrafoan esaldiak modu koherentean antolatu behar dira, hau da, modu logikoan eta argian paragrafoaren mezua ondo uler dadin. Adibidean honela antolatu ditugu esaldiak:

Hasteko, ideia nagusia azaltzen duen esaldia idatzi dugu; ondoren, Nafarroako Konkistari buruzko datuak; gero, konkistak ezarri zuen lurraldearen banaketa; eta amaitzeko, herritarren arteko harremanetan izan zuen eragina.

- **Esaldien arteko kohesioa.** Azkenik, esaldiak modu koherentean antolatu ondoren, elkarren artean modu egokian lotu behar dira. Horretarako, kasu batzuetan lokailuak erabiliko ditugu:


- Ideia bat gehitzeko: bestalde, ezezik, baita ere...

- Kontrastea adierazteko: baina, hala ere, horren aldean...

- Zerbait azaltzeko edo argitzeko: hau da, esaterako, adibidez...

- Ondorioak adierazteko: horren ondorioz, hortaz...

- **Esaldi osagarriak.** Esaldi hauen bidez ideia nagusiari laguntzeko aukeratu ditugun zehaztapenak adieraziko ditugu: datuak, adibideak...



2. ariketa

Hemen duzu lehenengo ideia nagusiarekin idatzi dugun paragrafoa. Falta diren hitzak dagozkien lekuetan jarritz gero, paragrafo osoa irakurri ahal izango duzu.

Baina Beste horrenbeste Bitartea Ere Horren ondorioz Ordea Ordurako

Aro Modernoaren hasieran, Nafarroako Konkistaren ondoren, euskal lurraldea zatituta geratu zen. Gaztela eta Aragoiko Fernando Katoliko erregeak 1512an abiatu zuen Nafarroako Konkista militarra (1) hiru mende ziren Bizkaia, Gipuzkoa eta Araba bereganatuak zituela Gaztelak, eta Lapurdi eta Zuberoa.....(2) Frantziaren esku ziren jada.....(3) beste hamarkada bi beharko ziren, gatazka odoltsuz beterikoak, konkistatzaileek Nafarroa Garaia menderatu arte.....(4), lurraldea zatituta geratu zen, eta hegoaldea Gaztelaren esku banatu behar da(5), Iparraldean erresumak biziraun egin zuen, nabarmenki gutxiturik. Herritarrek,.....(6), antzinako harremanak eta usadioak atxiki zituzten mugaldea, eta erresumek ezarritako oztopoak gaindituz, Baigorri, Erro, Garazi, Aezkoa eta beste bailara batzuetako abeltzainek akordioak adostu zituzten bateko eta besteko herri lurrak erabiltzeko. Eta(7) gertatu zen hizkuntza komunarekin, euskararekin.



3. ariketa

Orain, aurreko adibidea gogoan, idatz ezazu bigarren paragrafoa prestatu duzun eskema oinarri.

GOGORATU:

- Paragrafoaren hasieran ideia nagusia argituko duen esaldia idaztea komeni da.
- Ondoko esaldietan, eskeman jasotako ideia osagarriak azaldu ohi dira. Gogoratu esaldi horiek modu koherentean antolatu behar direla, eta elkarren artean modu egokiz lotu behar direla.

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....


.....



5. urratsa: Paragrafoa berrikusi.

• Eta lana amaitzeko azken urratsa falta dugu: idatzi duguna arretaz irakurri, zerbait zuzendu edo aldatu behar dugun aztertu, eta eman behar diren moldaketak emanda testua garbira pasatu. Paragrafoak berrikusteko orduan, honelakoei errepara diezaikegu:

- Ideia nagusia argi geratu da? Irakurlea testuaren haria gal dezake uneren batean?
- Ideiak modu logikoan ordenatuta daude?
- Mezua argi uzteko daturen bat falta da? Zerbait sobera dago?
- Esaldiak zuzen idatzita daude? Akatsik badago?
- Testua desitxuratzen duen zerbait dago (errepikapenak, esaldi nahasiak, luzeegiak...)?
- Esaldiak modu egokian lotuta daude?



4. ariketa

Orriaren hasieran idatzi duzun paragrafoa berrikusi aurreko galderen laguntzaz, eta paragrafoa garbira pasatu behar diren moldaketak eginda.

- Elkartu ikaskide batekin, eta trukatu zeuen testuak (garbira pasatu dituzuen bertsiok).
- Irakur ezazue arretaz elkarren testuak, eta azter itzazue 5. urratseko galderak eginez: zerbait ez dago argi?
Zerbait sobera edo faltan dago? Akatsen bat dago?
- Komentatu elkarrekin egin dituzuen azterketak eta testuak hobetzen saiatu.



Ondorioak eta auto-ebaluazioa

Edozein lan egin ondoren, oso garrantzitsua da egindakoa ebaluatzea eta ondorioak ateratzea. Horretarako, orri honetan egin dugun lanari erreparatuko diogu, ikusi dugun dokumentala baloratuko dugu, eta egindako ariketarekin ikasi duguna aztertuko dugu.

Dokumentalari buruzko iritzia.

1. Dokumentala zure gustukoa izan da? 1 2 3 4 5

- Zergatik?

2. Gaia interesgarria iruditzen zaizu? 1 2 3 4 5

- Dokumentalak eskaini dizkizun hiru ideia interesgarri aipatu:

a.

b.

c.

Ariketan ikasitakoaren balorazioa.

3. Paragrafo egokiak idazteko teknika

- Teknika interesgarria iruditzen zaizu paragrafoak hobeto idazteko? 1 2 3 4 5

- Zergatik?

- Aurrerantzean ikasitakoa erabiltzeko prest zaude? Noiz? Zertarako?

Erantzunak

2. ariketa: Datu faltsuak

Testuan agertu diren hiru informazio faltsuak hauek dira:

a. "...hirietan eta goi-klaseko jendearen artean, euskarak atzera egin zuen nabarmen. Iparraldean, ordea, euskara ia erabat desagertu zen, Baionan salbu."

Izan ere, Iparraldean euskararen egoera egonkorra mantendu zen XX. mendera arte, Baionan izan ezik. Baionan gaskoia zen hizkuntza nagusia.

b. "...pigdin" izenekoak sortzen ziren, hau da, bisitarien hizkuntza bertokoen gainean inposatzea. XVI. mendearen, esaterako, Islandian euskaraz mintzo zen."

Pigdinak hizkuntza diferenteak dituzten gizatalde bi elkartzean garatzen den lengoia da. Eta Islandian, garai haietan, euskarazko pigdin bat mintzo omen zen, ez euskara.

c. "1789an Frantziako Iraultzaren ondoren sorturiko Legebiltzar berriak lege bakarra inposatu nahi zuen Estatuan, baina, horrekin batera, herri hizkuntzen eta identitateen aldeko politika sendoa ere hasi zen. Estatuan egiten ziren hizkuntzak, euskara barne, jakina, Estatuaren altxorak ziren."

Egia esan, guztiz kontrakoa gertatu zen: Frantzia hizkuntza eta identitate bakarraren aldeko politika sendoa ere hasi zen. Jakina, frantsesa zen askatasunaren hizkuntza, eta gainerakoak, euskara barne, Estatuaren aurkakoak ziren.

3. ariketa: Oroitzen zara?


1: a 2: b 3: c 4: a 5: c 6: c 7: a 8: b
9: b 10: b 11: b 12: b 13: b

4. ariketa: Paragrafoak pausuz pausu eraikitzen

1. ariketa

XVI. mendean Espainiako eta Frantziako erresumak sendotu

DATUA: 1587an, Nafarroako 509 herrietatik, 451 euskaldun elebakarrak



2. ariketa

Aro Modernoaren hasieran, Nafarroako Konkistaren ondoren, euskal lurraldea zatituta geratu zen. Gaztela eta Aragoiko Fernando Katoliko erregeak 1512an abiatu zuen Nafarroako konkista militarra; ordurako, hiru mende ziren Bizkaia, Gipuzkoa eta Araba bereganatuak zituela Gaztelak, eta Lapurdi eta Zuberoa ere Frantziaren esku ziren jada. Baina beste hamarkada bi beharko ziren, gatazka odoltsuz beterikoak, konkistatzaileek Nafarroa Garaia menderatu arte. Horren ondorioz, lurraldea zatituta geratu zen, eta hegoaldea Gaztelaren esku geratu zen bitartean, Iparraldean erresumak biziraun egin zuen, nabarmenki gutxiturik. Herritarrek, ordea, antzinako harremanak eta usadioak atxiki zituzten mugaldean, eta erresumek ezarritako oztopoak gaindituz, Baigorri, Erro, Garazi, Aezkoa eta beste bailara batzuetako abeltzainek akordioak adostu zituzten bateko eta besteko herri-lurrak erabiltzeko. Eta beste horrenbeste gertatu zen hizkuntza komunarekin, euskararekin.